

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EUSKERA, KULTURA ETA KIROL SAILA

#### **238/2016 Foru Agindua, urriaren 3koa, onartzen duena Musika maketen X. lehiaketaren sariduna erabakiko duen epaimahaia izendatzea**

Maiatzaren 27ko 132/2016 Foru Aginduaren bidez, Musika Maketen X. Lehiaketaren deialdia eta oinarriak onartu ziren.

Deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaia izendatu beharra dago.

Aztertu dugu Kultura Azpiegiturako Atalaren buruak emandako txostena.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

#### XEDATZEN DUT

Lehena. Musika Maketen X. Lehiaketako epaimahai kalifikatzaileko kideak izendatuko dira; hona hemen:

- Alison Keable.
- Enrique Loiola Holgado.
- Daniel Ortega Pérez.

Epaimahaiko idazkari, Nuria Armenteros Yeguas jardungo da, Kultura Azpiegitura Ataleko erdi mailako teknikaria.

Bigarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu dadila agintzea, guztiek jakin dezaten, Azaroaren 26ko 10/1992 Legearen 29. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Gasteiz, 2016ko urriaren 3a

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua*  
**IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE**